

Lankidetzaren publiko-komunitarioaren bidetik guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko HERRITARREN BATZARREKO PARTE IZAN nahi duzu?

<IZENA> <ABIZENA 1> <ABIZENA 2>
<HELBIDEA> <ZKIA> <PISUA> <ATEA>
<HELBIDEA2>
20400 TOLOSA

<IZENA> agurgarria.

Gutun honen bitartez jakinarazi nahi dizut 16 urtetik gorako herritar guztien artean burututako zozketan hautatua izan zarela. Zertarako? Galdera honi erantzuteko martxan jarriko dugun Herritarren Batzarrean parte hartzeko:

Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzaren publiko komunitarioaren bidetik, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko?

Tolosarren osasun eta ongizate emozionala udalerrira gisa dugun erroka sozial-kolektibo garrantzitsuenetako bat da. Isolamendua, depresioa, antsietatea eta bakardadea bezalako errealitateak eta arazoak gure inguruko adin guztietako pertsonengan ematen dira, eta nabarmenagoak egin dira oso denbora laburrean. Horregatik, horiei aurre egiteko, hautatuak izango zareten herritarren ekarpenak jaso nahi ditugu.

Herritarren Batzarrean parte hartzeko izena ematen duzuen artean bigarren zozketa egingo da eta 32 pertsonako talde bat osatuko dugu. Lantalde honen zeregina izango da erroka erantzuteko xedearekin Tolosako Udalarentzat proposamen eta gomendioen zerrenda bat egitea. Eta Tolosako Udalaren konpromisoa da gomendio horiei jarraipena egin eta erantzuna ematea.

Prozesuan parte hartzeko ez da gaien aditua izan behar, izan ere, erroka aurre egiteko laguntza eskainiko zaizue eta prozesua amaitzean 444€ko ordainsaria jasoko duzue.

Era berean, beharrezkoa denean itzulpen-, zaintza- edota interpretazio-zerbitzua eta garraio-laguntza eskainiko da.

· Lan saioak (larunbatetan)

Urriaren 22an
Azaroaren 5ean
Azaroaren 19an
Abenduaren 3an
Abenduaren 17an

9:00-18:00etako ordutegian (atsedenaldi eta otordu tarteak egongo dira).

· Lekua

Tolosako Lanbide Heziketa Ikastetxean izango dira saio guztiak (Santa Luzia 17).

Herritarren Batzarrean izena emateko (**2022ko urriaren 10a** (barne)), ezezkoa adierazteko edota zalantzak argitzeko jarri zaitez gurekin harremanetan bide hauetatik:

· Telefonoa

688 76 84 58

· Helbide elektronikoa

osasunemozionala@tolosa.eus

Animatu parte hartzera! Erronka garrantzitsu honen aurrean guztion ekarpenaren beharra dugu!

Aldez aurretik zure erantzuna eskertuz. Jasoko ezazu agur bero bat.

Tolosa, 2022ko irailak 19.



Olatz Peon Ormazabal
Tolosako alkatea